

1975;ko Apirilak 14

Lafitte Jaun Adixkidea,

Neure liburutegian baztertua nuen eskuizkribu bat egun haue-
tan harrapatu dut. Ez dakit haatik non aurkitu nuen, ongi oroit
baldin banaiz, duela hogoi bat urte ! Ari naiz hea idatzi hau se-
kula nonbeit argitaratua izan denetz. Zuk zerbait xehetasun daki-
kezulakoa, idazten dizut jakiteko hea nonbeit argiaratua izan ze-
netz eta nork idatzi zuen.

Hiru kopia baditut :

1 . (25 orri handi) nik uste lehen ixurian idatzitakoa.

Hana 1-en orriko xehetasun batzuk:

Le 7 juin 1910

Diharce, Jaun Bicario Generalari
Jauna

" Authengo Maiatzaren hamabian galdegin dautazu Eskualdunaren-
tzat izeriba detzadan Africa zolan egin ditudan itzul-inguru-
ac, mila bederatzi ehuneco urthean.
(.....)

Beheraxago kondaira honela hasten da :

" Mila bederatzi ehunean, martchoaren azken egunetan, Aldudeco
elizan, haur multcho batec leken kominionea egin zuten igan-
de hartan, nic zangoa eman nuen Natal deithu itsas-untzian;
La Joliette-Marseilleco portuan.

2 ; (14 orri) 1-naren parte bat.

3 . (30 orri) garbiki idatzia eskolako kahier batetako ostoetan.
1-aren arrakopia segurrenik.

Lantxo hau ez ote zuen Espil apezak idatzi ? Hau nik uste,
sortzez Altzukurutarra zen eta Pagolan erretor egona. Ez ote zena
ere Alduden bikario egon ?

Milesker, Lafitte Jauna. Eta bihotz-bihotzetik.

Manex Erdozaency-Etchart
sfm